

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA **(HZ ERDI MAILA)**

Ezarri berri den LOE Heziketa Zikloa. **Indarrean 2011-2012 ikasturtetik aurrera**

BAIMENDUA D. BOSCON 2012-13 IKASTURTEAN

ZIKLOAREN HELBURUAK

- Titulu bakoitzari dagokion produkzio-sektorearen erreferentzian islatuta dagoen lanbide-gaitasuna eskuratzeko heziketa ematea.
- Dagokion produkzio-sektorearen antolamendua eta ezaugarriak eta sektore horretan lanbideratzeko mekanismoak ulertzeko, oinarrizko lan-legeria eta lan-harremanetatik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak ezagutzeko, eta segurtasun-baldintzetan lan egiteko eta lan-egoeretan sor daitezkeen arriskuak aurreikusteko beharrezkoak diren ezaguera eta trebetasunak eskuratzeko heziketa ematea.
- Etorkizuneko ikaskuntzearako eta prestakuntzen aldaketari dagozkion etorkizuneko egokitzapenearako motibagarria izango den nortasun eta heldutasun pertsonal eta profesionala eskuratzeko heziketa ematea.
- Lanbidean jardutearen bidez ingurugiroaren zaintza eta errespetuan eta prozesu, produktu edota zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan aktiboki parte hartzeko heziketa ematea.

GAITASUN OROKORRA

Titulu honen konpetentzia orokorra da telekomunikazio-instalazioak eta ikus-entzunezkoak, irrati-komunikazioen instalazioak eta instalazio domotikoak muntatzea eta mantentzea, betiere indarrean dagoen araudia eta erregelamentazioa aplikatuz, kalitate, segurtasun eta laneko arriskuetao protokoloak aintzat hartuz, eta funtzionaltasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuz.

GAITASUN ATALAK

Este técnico debe ser competente en:

- Eraikinetan edo eraikin multzoetan soinu-irradi-difusioko eta telebistako seinaleak hartzeko instalazioak muntatzea eta mantentzea (antena eta kable bidezkoak).
- Hiritarren esku dagoen telefonia-zerbitzura sartzeko instalazioak eta sarrera kontrolatzeko instalazioak muntatzea eta mantentzea (barne-telefonia eta bideo-atezaintza).
- Megafoniako eta lokalen sonorizazioko instalazioak muntatzea eta mantentzea.
- Telebista-zirkuitu itxiko instalazioak muntatzea eta mantentzea
- Ahalmen txikiko telefonogunez osatutako telefonia-sistemak muntatzea eta mantentzea
- Datu-sare lokalen azpiegiturak muntatzea eta mantentzea

LANBIDE IRTEERAK

Lanbide-irudi honek mikroenpresetan eta enpresa txikietan eta ertainetan egingo du lan, batez ere pribatuetan, telekomunikazio-azpiegiturak, telebista-zirkuitu itxiko instalazioak eta segurtasun elektronikokoak, telefonoguneak eta ahots- eta datu-sareen azpiegiturak, megafonia- eta sonorizazio-instalazioak, irrati-komunikazioen instalazioak, sistema domotikoak eta informatika-tresneria muntatzeko eta mantentzeko arloetan, bere kontura zein besteren kontura.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Etxebizitza-erakinetako telekomunikazioen instalatzailea.
- Antena-instalatzailea.
- Segurtasun-sistemen instalatzailea.
- Sare lokaletako eta telematikako teknikaria
- Sare lokalen instalazioko eta mantentze-lanetako teknikaria
- Telefonía-instalatzailea.
- Tresneria telefoniko eta telematikoen instalatzailea eta muntatzailea.
- Soinu-instalazioetako teknikaria.
- Megafonia-instalatzailea.
- Sistema domotikoetako instalatzailea eta mantentzailea.
- Informatika-tresneriaren teknikari instalatzaile eta mantentzaile

MODULUAK ETA HAIEN IRAUPENA LEHENENGO IKASTURTEAN: 990 ordu

MODULUAK	EDUKINAK	IRAUPENA
Elektronika aplikatua EAP	<ul style="list-style-type: none">- Korrante zuzenean kalkuluak eta neurketak egitea- Elektromagnetismoaren oinarrizko printzipioak ezagutzea- Korrante alternoan (ka) kalkuluak eta neurketak egitea- Oinarrizko zirkuitu analogikoak muntatzea- Elikatze iturriak ezaugarritzea- Eragiketa anplifikadoreak dituzten zirkuituak muntatzea- Zirkuitu digitalak muntatzea- Zirkuitu mikroprogramagarriak aplikatzea	231 ordu
Mikroinformatika-tresneria EMI	<ul style="list-style-type: none">- Mikroinformatika tresneria muntatzea eta konfiguratzeko- Sistema eragileak instalatzea- Sistema eragileak konfiguratzeko- Periferikoak instalatzea- Informatika tresnak maneiatzea- Mikroinformatika tresneria mantentzea- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen babesari buruzko arauak betetzea	165 ordu

Datu-sareen eta telefonia-sistemen azpiegiturak EIT	<ul style="list-style-type: none"> - Datu sare lokalen azpiegiturak osatzen dituzten tresneria eta osagaiak - Telefonoguneak eta datu sareak dituzten telefono instalazioen kanalizazioa eta kableatua - Datu sare kableatuen azpiegiturak instalatzea - Hari gabeko sareak eta VSAT sareak instalatzea - PBX telefonoguneak ezaugarritzea - Telefonia sistema txikiak konfiguratzea - Telefonoguneak instalatzea - Telefonia sistemak eta datu sareak mantentzea eta konpontzea - Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen babesari buruzko arauak betetzea 	165 ordu
Oinarrizko instalazio elektrikoak EIB	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko zirkuitu elektrikoak muntatzea - Etxebizitzetan babes koadroak muntatzea - Etxebizitzetako instalazio elektrikoak muntatzea - Lokaletako instalazioak muntatzea - Makina txikietako instalazio elektrikoak - Instalazio elektrikoetan matxurak hautematea eta mantentze lanak egitea - Laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen babesa 	264 ordu
Irrati-komunikazioen instalazioak EIR	<ul style="list-style-type: none"> - Irrati komunikazioen sistemetako tresneria eta elementuak identifikatzea - Irrati komunikazioen tresneria eta elementu osagarriak instalatzea - Irrati komunikazioen tresneria konfiguratzea - Irrati komunikazioen tresneria zerbitzuan jartzea - Irrati komunikazioen tresneria mantentzea eta handitzea - Parametroak eta funtzionaltasuna berrezartzea - Laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen babesa 	132 ordu
Ingeles teknikoa I	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko mezuak ulertu eta sortzea. - Idatzizko mezuak interpretatzea eta adieraztea. - Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea. 	33 ordu

MODULUAK ETA HAIEN IRAUPENA BIGARREN IKASTURTEAN: 1010 ordu

MODULUAK	EDUKINAK	IRAUPENA
Etxebizitzetako eta eraikinetako telekomunikazio azpiegitura komunak EIC	<ul style="list-style-type: none"> - Telekomunikazio azpiegiturretako elementuen identifikazioa - Eraikinetako telekomunikazio azpiegiturretako instalazio txikien konfigurazioa - Eraikinetako telekomunikazio azpiegiturretako instalazioak muntatzea - Telekomunikazio azpiegiturretako instalazioen elementuak eta parametroak egiaztatzea, doitzea eta neurtzea - Telekomunikazio azpiegiturretako ekipoetan eta instalazioetan matxurak eta disfuntzioak aurkitzea - Eraikinetako telekomunikazio azpiegiturretako instalazioak konpontzea - Laneko arriskuen segurtasuna, prebentzioa eta ingurumen babesa 	105 ordu

Instalazio domotikoak EDO	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazio domotikoak, erabilera eremuak - Etxebizitzen automatizazioan aplikatutako sistema teknikoak - Etxebizitzetako instalazio elektrotekniko automatizatuaren muntaia - Etxebizitzetako aplikazio eremuen muntaia - Etxebizitzetako instalazio elektrotekniko automatizatuak mantentzea - Etxebizitzetako instalazio elektrotekniko automatizatuetak matxurak - Laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen babesa 	126 ordu
Megafonia- eta sonorizazio- instalazioak EIM	<ul style="list-style-type: none"> - Megafoniako eta sonorizazioko elementuak identifikatzea - Megafonia eta sonorizazio instalazio txikiak konfiguratzea - Megafonia eta sonorizazio instalazioak muntatzea - Megafonia eta sonorizazio instalazioetako elementuak eta parametroak egiaztatzea, doitzea eta neurtzea - Megafoniako eta sonorizazioko tresnerian eta instalazioetan matxurak eta disfuntzioak konpontzea - Laneko arriskuen segurtasuna, prebentzioa eta ingurumen babesa 	105 ordu
Telebista-zirkuitu itxia eta segurtasun elektronikoa ECC	<ul style="list-style-type: none"> - Tresneria eta elementuak - Instalazio txikiak konfiguratzea - Telebista zirkuitu itxiko instalazioak muntatzea - Software espezifikoak instalatzea eta konfiguratzea - Zentralak eta elementu osagarriak muntatzea - Jarraipeneko eta kontroleko tresneria muntatzea - Telebista zirkuitu itxiko eta segurtasuneko instalazioak mantentzea - Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen babesari buruzko arauak 	126 ordu
Laneko prestakuntza eta orientabidea FOL	<ul style="list-style-type: none"> - Lan munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko prozesua. - Gatazka eta lan-taldeak kudeatzea. - Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak. - Gizarte Segurantzza, enplegua eta langabezia. - Arrisku profesionalak ebaluatzea. - Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea. - Enpresan prebentzio- eta babes-neurriak. 	105 ordu
Enpresa eta ekimen sortzailea EIE	<ul style="list-style-type: none"> - Ekimen sortzailea. - Enpresa ideiak, ingurunea eta haien garapena. - Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea. - Administrazio funtzioak. 	63 ordu
Lantokiko prestakuntza FCT	<ul style="list-style-type: none"> - Modulua burutuko den enpresaren arabera. 	380 ordu